

## **EH Bildu: "Pasaia anbizioa duen udal gobernua behar eta merezi du"**

- 2019tik hauteskunde guztietan lehen indarra izan gara eta ardura izugarri horri erantzuten ahalegindu gara eta ahaleginduko gara baita aurrerantzean ere.
- Legealdi erdia iritsi denean, proiekturik eta gobernu planik gabeko udal gobernua izaten jarraitzen dugu Pasaian.

Egunero herriari begiratu eta alde gutxi nabarmenduko dugu azken bospasei urteetan. Proiekturik eta gobernu planik gabeko udal gobernua dugu Pasaian, PSE-EEK eta EAJ-PNVk osatuta. Etsita daude, "es lo que hay" lelopean. Eta hori ez da okerrena, pasaitarrok etsita nahi gaituzte.

Azken bi legealdiotako dinamikak argi erakutsi digu egungo udal gobernua herritarrengandik urruti dagoela, eta erabakiak bulegoetan hartzen dituztela. Alkateordetzak ia desagerturik ditugu eta herriko taldeek zein norbanakoek oso mugatuak dituzte proposamenak egiteko espazioak. Areago, azken legealdi honetan bereziki, udal gobernuak hainbat eragile gutxietsi ditu nabarmen.

Gure herria itotzen duten kanpo erabakien aurrean herri ahots sendoa behar du Pasaia. Legealdi hasieratik jarri dugu mahai gainean aliantza politikoak egiteko beharra, horretarako, herritarrekin bat eginik, alderdi politikook ere batera egin beharko genuke lan. Baina pareta gogor batekin egin dugu topo etengabe.

EH Bildu elkarlanerako grinaz aritu da etengabe, hamaika dira egin ditugun proposamenak eta beste horren beste gobernuari eskua luzatu diogun aldiak. Legealdi bereziki zaila izan da hau, baita guretzat ere. Baina covid-19ak kolpatutako kolektiboekin egon gara. Horregatik, 2021eko aurrekontuari begira sektore kaltetuenak suspertzeko talka-plana proposatu genuen. Baita kultur eta kirol jardueri eutsi eta hauek areagotzeko plana ere. PSE-EEK eta EAJK, ordea, albo batera begiratzea erabaki dute etengabe.

Pasaia anbizioz beteriko udal gobernua behar du. Etsipena alde batera utzi eta herritarron bizikaltatea hobetzeko azala utziko duena. Herriko norbanako eta elkarteekin erabakiak partekatuko dituen udal gobernua behar dugu, herrian bizi dena eta herrian bizitza egiten duena. Trintxerpen, Adinberritik eta Zirizatik abiatuta, La Herrerako lurra bereganatzeko lan egingo duena. Antxon, topoaren lurrazpiratzeak irekiko duen aukera herritarrekin partekatuko duena, Nafarroa Etorbideako bulebarraren alde egingo duena eta Luzuriaga eraikina eskuratzeko ahaleginak egingo dituena. San Pedron, Lonjaren terraza egin eta aparkalekua irekitzeko borrokatuko duena. Eta Donibanen, udako bisitariak eragindako elkarbizitza arazoei tinko aurre egingo diena eta saneamendua lehenbailehen hasteko lan egingo duena.

EH Bildutik, bertatik bertara aritu gara lanean, zuretzat, denontzat, herriarekin eta herriarentzat. 2019tik hauteskunde guztietan lehen indarra izan gara eta ardura izugarri horri erantzuten ahalegindu gara eta ahaleginduko gara baita aurrerantzean ere. Guk Pasaia etorkizuna amesten dugu, zurekin Pasaia gara.

Pasaia, 2021eko uztailaren 9an

## **EH Bildu: "Pasaia necesita y merece un gobierno municipal con ambición"**

- Desde 2019 hemos sido la primera fuerza política en todas las elecciones y hemos intentado y seguiremos intentando responder a esa enorme responsabilidad.
- Transcurrida media legislatura, seguimos teniendo un gobierno municipal sin proyecto ni plan de gobierno en Pasaia.

Son pocas las diferencias que notaremos si nos fijamos en los cambios que ha tenido nuestro pueblo durante estos últimos cinco o seis años. En Pasaia, tenemos un gobierno municipal sin proyecto ni plan de gobierno, formado por PSE-EE y EAJ-PNV. Están resignadas, bajo el lema "es lo que hay". Y eso no es lo peor, quieren que los y las pasaitarras también lo estemos.

La dinámica de las dos últimas legislaturas nos ha demostrado que el actual gobierno municipal está lejos de la ciudadanía y que las decisiones las toman desde los despachos. Las Tenencias de Alcaldía están prácticamente desaparecidas y tanto las asociaciones como las personas ciudadanas tienen muy limitados los espacios para hacer propuestas. Más aún, especialmente en esta última legislatura, el gobierno municipal ha menospreciado notablemente a varios de estos agentes.

Pasaia necesita una voz popular sólida ante las decisiones externas que ahogan a nuestro pueblo. Desde el inicio de la legislatura hemos puesto sobre la mesa la necesidad de hacer alianzas políticas, para ello, en connivencia con la ciudadanía, los partidos políticos también deberíamos trabajar conjuntamente. Pero no paramos de encontrarnos con una pared dura.

EH Bildu ha trabajado por la senda de la colaboración, son innumerables las propuestas que hemos hecho y las veces que hemos tendido la mano al gobierno municipal. Somos conscientes de que esta ha sido una legislatura especialmente difícil, también para nosotros. Pero EH Bildu ha estado con los colectivos golpeados por el covid-19. Es por ello por lo que propusimos un plan de choque para reactivar los sectores más afectados de cara al presupuesto de 2021. Así como un plan para mantener e incrementar las actividades culturales y deportivas. Sin embargo, el PSE-EE y el PNV han decidido ponerse de lado constantemente.

Pasaia necesita un gobierno municipal lleno de ambición. Que abandone la resignación y se deje la piel para mejorar la calidad de vida de la ciudadanía. Necesitamos un gobierno municipal que comparta las decisiones con los y las pasaitarras y las asociaciones del pueblo, que viva en el pueblo y haga vida en él. Un gobierno que en Trintxerpe, partiendo de Adinberri y Ciriza, trabaje para hacerse con los terrenos de La Herrera. Que en Antxo, comparta con la ciudadanía la opción que abrirá el soterramiento del Topo, que apueste por el bulevar de Nafarroa Etorbidea y que se esfuerce por hacerse con el edificio de Luzuriaga. Que en San Pedro, luche para que se haga cuanto antes la terraza de la Lonja y se abra el parking público bajo ella. Y que en Donibane, afronte firmemente los problemas de convivencia provocados por las personas visitantes y veraneantes y trabaje para que la obra del saneamiento comience cuanto antes.

Desde EH Bildu, hemos trabajado con cercanía, para ti, para todos y todas, con el pueblo y para el pueblo. Desde 2019 hemos sido la primera fuerza política en todas las elecciones celebradas y hemos intentado y seguiremos intentando responder a esa enorme responsabilidad. Nosotros y nosotras soñamos el futuro de Pasaia, contigo somos Pasaia.

Pasaia, 2021eko uztailaren 9an